

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2221

737/2020 EBAZPENA, maiatzaren 11koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Imanol Riveiro Barrio jauna Zerbitzu Orokorretako Ekipoaren arduradun izendatzen den (Sukaldeko zerbitzua-txandakako txanda), izendapen aske bidez, Osakidetzako Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan.

434/2019 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Donostialdeko ESIan Zerbitzu Orokorretako Ekipoaren arduradun (Garbitzaileak zerbitzua-txandakako txanda) lanpostu izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu zen.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen proposamena egin du. Horiek horrela, eta Imanol Riveiro Barrio jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Zerbitzu Orokorretako Ekipoaren arduradun (Sukaldeko zerbitzua-txandakako txanda) Osakidetzako Donostialdeko ESIan.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. Artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Imanol Riveiro Barrio jauna izendatzea Zerbitzu Orokorretako Ekipoaren arduradun (Sukaldeko zerbitzua-txandakako txanda), Osakidetzako Donostialdeko ESIan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2020ko martxoaren 16tik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatzea, baina edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eustea. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dago-kionez. Atxikipen horrek kargugabetze dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Donostialdeko ESIari jakinaraziko zaie.

2020ko ekainaren 8a, astelehena

Bosgarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2020ko maiatzaren 11.

Donostialdea ESIko zuzendari-gerentea.

E (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Pertsonaleko zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.